



179. zenbakia

· ABENDUA 2018 ·

# pulunpe

8



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan

### KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

### TIRADA

1.600 aleak

### INPRIMATEGIA

Gertu

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

### AZALEKO ARGAZIA

Onddoaren eguna ospatu zuten  
Larraitzarko Frontoian

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urriaren 30 an bidalia

Olerkia



“ *Utzaman gerra aurrietik  
arbolako txori,  
horrek euskaraz egin  
ohi zigun oroi;  
maisu ta apez frankistek  
debekatu hovi,  
txoria ulzi zuten  
kolpeka hil zori,  
baina arbola ez zen  
erabat eroi.* ”

**JULIO SOTO,**

‘Euskara eta kirola’ jardunaldietan



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra





# Pulunpe banatzaileekin

## bazkaria

Hil honen 3an, larunbatez, izan genuen Pulunpe banatzaileen bazkaria. Hamabik eman zuten izena, baina azken momentuan bik beren ezin etorri azaldu ziguten.

Aurten Igoako ostatuan zen hitzordua. Ederki bazkaldu genuen eta bazkalondo luze eta atseginaz gozatzeko aukera izan genuen.

Igoako banatzaile eta soinujolea den Leontzio, gogotik ahalegindu zen denok alaitzen, eta baita erdietsi ere.

Gure eskerrik beroenak banatzaile guziei, etorri zirenei eta ez zirenei, zuei esker Pulunpe zuzen eta garaiz iristen baita gure auzo guziengana.

Datorren urtean berriz, eta hobeki, zail izanen da baina.



▲ Banatzaileen bazkaria



**LARRAINTZARKO  
BENTA  
ZENTRO ZIBIKOA**

**luntxak  
bazkariak  
afariak**

...

**ENKARGUZ**

**deitu:  
948 30 92 57**



# Gaztainaren kultura berreskura

Gaztaina garaia da, agian gaztaina-saltzailea plazetan ikusi dugulako konturatu gara batzuk, eta danbolinean erretakoak dastatu ditugu dagoeneko. Gaur egun neguko goxoki edo kapritxo gisa hartzen dira gaztainak, gutizia gisa, alegia. Baina duela urte batzuk, ez horrenbeste, eguneroko oinarrizko elikagaia ziren etxe guztietan, Martzelo eta Mari Carmen Beloki Perkaz anai-arreben etxean, Etxalekuko Beltranean, esate baterako. Haien etxe parean jarri dute, hain zuzen ere, gaztaina eskorta zaharberituraino doan bidearen lehenengo seinalea. Urrian inauguratu zuten gaztainak basoan gordetzeko erabiltzen zen harriz egindako biltegi borobila.

Gaztaina eskorta, kirikino-hesia..., izen ugari ditu gaztainak bere morkotsean hilabeteetan mantentzeko erabiltzen ziren gordelekuak. Gaztaindegietan, gaztainadietan, alegia, basoan, borobilean altxatzen zen harrizko horma batek osatzen zuen biltegi hori. Hiru eta bost metro bitarteko diametroa izaten zuen, eta 50 eta 150 zentimetro arteko altuera. Etxean gordetzeko lekurik ez zegoenean, bertan biltzen zituzten fruituak, zerriek jan ez zituzten. Esan bezala, gehienak borobilak dira, baina errektangularrak ere badaude. XVIII. mendean eraikitakoak dira gehienak, eta pasa den mendeko erdialdera arte erabili ziren.



▲ Beltranean hartu gintuzten Martzelo eta Mari Carmen Beloki Perkazek. Han eman genuen berriketan arratsa, Juanjo Zubietarekin batera, ia bi ordu.

## ETXALEKUKO GAZTAINA ESKORTA BERRITZEA

Larraungo Ondare Kultur Elkarteko Juanjo Zubietak Etxalekuko gaztaina eskortaren zaharberritzea bultzatu zuen, eta Iturraskarri gizarte proiektuaren monitorea izanda, talde horretako laguntzaz bete zuen lana. “Inguruan galdezka aritu ginen, ea

gaztaina eskortaren bat ote zegoen. Oskozko Joseba Gartzaronek aipatu zidan Etxalekun bat zegoela. Orduan, Martzelorekin topo egin genuen, berak bai baitzekien non zegoen”. Ondoren, lanean hasi ziren. Imozko alkatearekin eta zinegotziekin hitz egin zuten, asmo polita iruditu zitzairen, eta Irurtzungo

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen oniritzia ere jaso zuten, Iturraskarriko taldearen bitartez eraberritzeko. Sasiak garbitzeko makina pila bat hartu, eta hiru ordutan garbitu zituzten gaztaina eskorta eta harainoko bidea.

Taldeak zaharberritzen duen bigarren gaztaina eskorta da, lehenengoa gure eskualdean, Albiasun garbitu zutenaren ondoren. “Euskal Herrian 110 gaztaina eskorta daude katalogatuta, Berria egunkariko erreportaje batean irakurri nuen. Imotz aipatzen zuen, baina ez dakit Etxalekukoa izanen ote zen. Ahal ditugun guztiak berritzea gustatuko litzaiguke; beraz, norbaitek baten bat ezagutzen badu, guri esan diezagula”, Juanjo Zubietaren eskaera. “Berueten, Arraratsen, Igoan igual bai..., gaztaindegi ikaragarri handiak daude”, dio Martzelo Belokik.



▲ Gaztaindegi handietan, basoaren erdian, borobilean altxatzen zen harrizko horma batek osatzen zuen gaztaina eskorta



# atzeko bidea erakutsiz



◀ Iturraskarriko taldearekin zaharberritu zuten gaztaina eskorta. Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatzen duen programa da, bazterkeria arriskuan daudenak laguntzeko.

## hiztegia

**Haga:** makila luzea, gazteleraz, “vara”.

**Morkotsa:** gaztaina inguratzen duen oskol arantzaduna, kirikiñoa, morkola. Erizo, gazteleraz.

**Matxardea:** gaztainak hartzeko erabiltzen zen egurrezko pintza.

**Esporta:** gaztainak, intxaurrak, sagarrak, eta abar biltzeko saskia.

## BIDEA MARKATZEA, HURRENGO PAUSUA

Ordu erdiko bidea dago Etxalekutik gaztaina eskortaraino. Zaharberritu ondoren, horibalizatu dute bidea Juanjo Zubietak eta Iturraskarrikoek. Gainera, egurrezko bost zutoin jarri dituzte, eta geziak ipiniko dituzte bertan, bidea ongi zehazteko. Seigarren seinale batek ere, Beltranea etxearen parean, bidearen hasiera adieraziko du. Horrekin batera, herrian bertan panel bat jarri nahi dute, azalpenekin. “Gaztaina eskorta zer den idatziko dugu, euskaraz eta gazteleraz”. Panela garestia da, baina, eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bat lortu nahi dute.

Aurten inaugurazioa izan dute urrian, eta datorren urtean, proiektu osoa bukatua izango dutela, urtero eginen duten gaztaina festa antolatu nahi dute.

## HAGAREKIN BOTA, ESPORTAN BILDU, OIHALAREKIN GARBITU

Baina nola biltzen ziren gaztainak? Martzelo Beloki Perkazek ongi daki, txikitik, 10 urte zituenetik askotan tokatu baitzitzaion aitarekin gaztaindegira joatea. “Hiru hagarekin botatzen genituen. Bat 5 metrokoa, gero beste batekin, bi edo hiru metro

gehiagokoa; eta, azkena, luzeena. Joaten ziren bueltan-bueltan jotzen bi edo hiru (pertsonek), eta beste bi edo lau biltzen. Eta handik esportetan gurdira. Guk egunean egiten genituen igual bi gurdi. Aita etortzen zen aurrena etxera gurdia kargatuta, eguerdi aldera. Eta gu, bitartean, han gelditzen ginen, beste lau edo bost lagun, biltzen. Eta jakina, aita etorri bitartean eskortara botatzen genituen. Arratsaldean, berriz, bostak edo bost eta erdietan etortzen ziren, bigarren joan-etorria egiten zuen aitak, eta gu han geratzen ginen ilundu bitarte”.

Martzeloren arrebak, Mari Carmen Beloki Perkazek ere gogoratzen ditu garai haiek: “brillu eta guzti atreatzen genien maindegiekin. Lehenengo morkotsetik separatu eta bereizi handiak eta txikiak eta gero brillua atera. Oihalarekin garbitzen genituen, belarra igotzeko erabiltzen ziren zaku moduko horrekin. Gaztaina mordera izaten genuen, aprobeztatu ezin zirenak, saltzera. Baina, bueno, morkotsean nahikoa aguantatzen zuten”.

## GALDUTAKO KULTURA

Belokik eta Zubietak penaz aitortzen dute gaur egun galdu egin dela gaztainaren kultura. Horregatik, akaso, eskorta zaharberritzea egitura arkitektoniko

huts bat berreskuratzea baino haratago doan ekintza izan daiteke. Juanjo Zubietak: “Gaztaina kultura hori galdu egin da, Asturiasen eta Galizian badituzte gaztaina eskorta handiak, eta saltzera eta abarretara dedikatzen dira. Baina hori Euskal Herrian 50. hamarkadan galdu zen. Gaztaina hemengo ogibidea zen, ordea, sekulako garrantzia izan zuen bere garaian, banabarrekin eta patatarekin batean, inportanteenetariko bat”.

Martzelo Belokiren etxean Irurtzunen saltzen zituzten gaztainak. “Aita Irurtzuna joaten zen astero. Bi zaku edo hiru, segun, eta hortxe aritzen ginen! Makila handi batzuekin zera jotzen, sardearekin, morkotsa puskatu beharrean. Aita esperoan Irurtzuna jaisteko, eta gaztainekin joan, eta etxean falta zena ekartzen zuen. Irurtzunen, ferietan, igual mila kilo gaztaina inguru zakuetan eramaten zuten!”.

Etxeetan oinarritzko elikagaia ere bazen, Beltranean, esate baterako: “Afaltzeko, edo patata, edo azak, horren atzean gaztainak, eta kazo bat esne, eta hori zen afaria, askotan, gainera. Zartanean egiten genituen kasik egunero. Gosaltzeko, esnearekin berotu, eta ogi zopak hartu beharrean, gaztaina. Ona, joe! Anaiarekin zer haserreak, batek kendu egin zuela eta...”.



## Nafarroako Gobernuak errentako etxebizitzak sustatuko ditu landa ingurunean, baina ez gure eskualdean

Errentako ehun etxebizitza inguru sustatuko ditu landa eremuetan Nafarroako Gobernuak. Iruñerrikanpoko eskaintza handitzeko helburua du ekimenak. Lizarran, Tuteran, Beran, Iruritan, Garraldan, Zangoztan, Erronkarin, Auritzen eta Aurizberrin hainbat programa eramango ditu aurrera gobernuak. Alokairu Plana eta etxebizitzak zaharberritzeko planak

dira, Nasuvinsak kudeatzen dituenak. “Eskariaren nahiz prezioen goranzko bilakaerari aurre egiteko eta zentzuzko prezioak bultzatzeko helburuarekin; baita eraikinen zaharberritzeko xedeari jarriki”, gobernuak aipatzen dituen helburuak. Eta gaineratzen du, Eskubide Sozialetako Departamentuak Foru Komunitateko lurralde osora hedatu nahi duela filosofia hori.

Ez dugu ikusi, ordea, Ultzama aldean egingo duten ekimenik. Nahiz eta Ultzamako Udaletik adierazi digutenez, oso interesgarria izango litzateke hemengo herrietan ere horrelako ekimenak ezarriko balituzte.

Nasuvinsa  
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

Nafarroako  
Gobernua  
Gobierno  
de Navarra

## El sexto sentido, Sandra Iraizozen gidoia Baluartean

Iruñeko Baluartean estreinatu zen El sexto sentido antzezlanak, azaroaren 18an. Aretoa bete bete, arrakasta izugarria izan zuen. “Aretoa bete zegoen eta jendea oso kontent atera zen, beraz gu bufff... hitzik gabe gaude!”, adierazi digu Sandra Iraizozek, hunkitua. Antzezlanak Lola Rodríguez zuzendu du, eta Sandra Iraizoz Eltzaburuarrak idatzi du emakumearen aurkako indarkeriaz hausnartzeko gidoia.

Sofia tratu txar psikologikoak jasaten ditu bere bikotekidearengandik eta harremana bukatzea erabakitzen du. Bere bikotekideak eragiten dizkion tratu txarrez konturatzeko prozesu hori, zalantzak baztertu eta erabaki egokia hartu duela ziur egon arteko bidea kontatzen du El sexto sentido antzezlanak. Bide horretan, idazten dituen olerkiak lagunduko dute protagonista. Bizipen gogorra da historiaren abiapuntua, baina mezua itxaropentsua da, indarkeria matxista gainditu daitekeela adierazi nahi du, Sandra Iraizoz gidolariak eta Lola Rodríguez zuzendariak esaten duten bezala.

Andrea Lunes Lilas indarkeria matxistaren aurkako elkarteak antolatutako ikuskizuna da, El sexto sentido. Lola Rodríguez, zuzendaria,

psikologoa da, eta indarkeria pairatu duten emakume ugari ezagutu ditu bere lanean, bizipen horietatik jaio zen istorio hau. Sandra Iraizoz eltzaburuarrak idatzi du gidoia.

Ikuskizuna, gainera, zuzeneko musikak laguntzen du. Juan Muñoz “Jolis” flamenko-kantaria, Rico Muñoz perkusionista, Pedro Planillo gitarra jolea, Lorena Jimenez eta Asier Azparrenen eskutik. Sofiaren papera Maitane Goñik eta Aritz Claramuntek antzetzten dute.



▲ Baluarte aretoa



▲ Maitane Goñi aktoreak Sofiaren papera antzetzten du



## Mikel Eugi eta Itxaso Onsalok irabazi dute Nafarroako arpana txapelketa mistoa

Mikel Eugi beuntzarrak eta Itxaso Onsalok aresoarrak Nafarroako arpana txapelketa mistoan garaipena lortu zuten azaroaren 16an Donezteben. Nafarroako aizkora txapelketan, Oier Kañamares aroztegiarra laugarren izan zen, bere lehendabiziko final handian. Jaialdi ederra izan zen Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Bete beteak ziren harmailak, tartean maila handiko kirolariak, besteak beste Xabier Orbegozo 'Arria V.a' edo Iñaki Perurena. Eta kantxan maila handiko Nafarroako bi final: aizkora eta arpana. Lehenengo saioan Nafarroako bost aizkolari hoberenak aritu ziren: Iker Vicente, Jon Rekondo, Joxean Etxeberria, Ruben Saralegi, eta lehen aldiz final handi batean aritu zen Oier Kañamares aroztegiarra.

Hasi aurretik denek zekiten ia ezinezkoa izanen zela Iker Vicente otsagiarrari txapela kentzea, eta hala izan zen. Hasieratik hartu zuen aldea Euskal



▲ Itxaso Onsalok eta Mikel Eugi sari banaketan

puntu bat zion horren saio gogorrari. Oinbikoak trabatu egin zitzaizkion, baina oso osorik amitu zuen saioa ia 40 minutu lanean eman eta gero.

Arpana txapelketa mistoan bost bikote aritu ziren, baina biren artekoa zen lehia nagusia: Mikel Eugi - Itxaso Onsalok bikoteak txapela mantentzeko aukera handiak zituzten, baina Josetxo Barberena - Ainhoa Iraizotz bikoteak txapela garesti saltzeko asmoa zuten. Hala ere, Eugi eta Onsalorentzat izan zen txapela (4'58"). Bigarren amaitu zuen Ultzamako bikoteak (5'29"), eta hirugarren Esti Gastearena erdi-ostiztarrak eta Unai Bertiz sunbildarrak (6'44"). Antsoingo bi bikoteak sailkatu ziren azken bi postuetan, laugarren izan zen Irune Biurrun - Endika Garay bikotea (7'04") eta bosgarren Alba Cobo - Tasio Ugarte bikotea (11'11").



▲ Oier Kañamares, azken enborra bota aurretik arnasa hartzen



## Utzaman egiten dituzten kirolak erakutsi zituzten aurtengo kirolaren asteburuan

Kirolaren eguna kirolaren asteburu bihurtu da aurtten. Azaroaren 17 eta 18an, larunbata eta igandez, hainbat partidu eta erakustaldi egin zituzten Larraintzarren.

Aurtengoan helburu zehatza zuen egunak, Ultzamako Udaletik aipatu digutenez, “kirol ezberdinetan jarduten direnen topaleku izan nahi duen eguna ospatu nahi da, egunerokoan gure bailaran kirola praktikatzeko duten talde zein norbanakoak elkartu eta kirolaren eguna kirola egiten ospatzea da helburua. Era berean, edonori gurean dauden kirol ezberdinak zeintzuk diren ezagutu eta ikusteko aukera ere izanen da”

Eta hala izanen. Larunbatean eskubaloia eta areto futbol partidak izan ziren kiroldegian, eta igandean esku-pilota partidak, herri kirol erakustaldia eta errugbi entrenamendu eta partida.



▲ Igandean errugbian aritu zen taldea

## Gizarte langilea behar da mankomunitatean

Ultzama aldeko gizarte zerbitzuen mankomunitateak lan eskaintza publikoa egin du. Aldi baterako gizarte langilea behar dute, hiru hilabetez lan jardunaldi erdian ariko dena.

Nafarroako enplegu zerbitzuaren bidez egin dute deialdia, eta honako baldintzak betetzea eskatzen dute: Gizarte langile titulua izatea, Siuss programa erabiltzen jakitea, C1 edo EGA euskara maila izatea eta ‘B’ motako gidabaimena izatea.

Larraintzarko gizarte zerbitzuen egoitzan, goizez ariko litzateke lanean gizarte langile berria. Informazio gehiago jaso edo izena emateko Ultzamako udaletxera joan zaitezke.

## Euskaraz aritzeko ‘mintzakide’ taldeetan izen ematea irekita

Mintzataldeak euskara praktikatzeko taldeak dira, askotan ingurune erdalduna izanda, zaila baita euskaraz bizitzea. Ultzama aldean, euskaraz aritzeko taldeak sortzen ari dira, eta izen ematea zabalik dago.

Hauxe da mintzataldeen inguruan igorri diguten informazioa:

“Euskara praktikatu nahi baduzu edo euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, eman izena zure herriko mintzapraktika talde batean.”

Izen ematea dohainik da eta telefono honetara deitu behar da: **638213199**



Zatoz gurekin!  
[www.praktikatu.eus](http://www.praktikatu.eus)

Izan zaitez  
Berbalagun  
Mintzalagun  
Mintzakide



## Laburbirarako film laburrak proposatu daitezke abenduaren 21era arte

XVI. Laburbira 2019ko martxoaren 18tik apirilaren 17ra izango da, oraindik zehaztu gabe dago zein herri bisitatuko dituen, hori Laburbiran parte hartu nahi duen euskaltzaleen mugimenduko elkarte kopuruaren arabera izango baita. Joan zen urtean 29 herritan zehar ibili zen zirkuitua, zortzi film labur erakutsiz. Horien artean Ultzama izan genuen, Larraintzarko zentro zibikoan izan baitzen emanaldia.

Azken lau edizioetan bezalaxe, 16.

Laburbira honetan ere deialdi zabala egin du Euskaltzaleen Topaguneak, laburrak euskaraz egiten dituzten sortzaile guztiek izan dezaten aukera zirkuiturako euren lanak aurkezteko. Izan ere, horixe da zirkuituaren helburu nagusia: sortzaileen lanak ezagutaraztea, euskaraz ekoizten jarraitu dezaten aukera emanez eta ikusleei gurean sortutako zineaz gozaraztea.



Abenduaren 21era arte irekita egonen da film laburrak aurkezteko epea lanak [leire@topagunea.eus](mailto:leire@topagunea.eus) helbidera bidaliz.

### HAUEK DIRA BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Filmek euskaraz egindakoak izan behar dute, 2016etik hona ekoiztutakoak, fikziozkoak eta 18 minututik beherakoak.

Eta hauek izanen dira **KONTUAN HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK** film laburrak aukeratzeko:

- Publiko guztientzako lanak izatea.
- Sortzaile berrien eta izen handikoen arteko oreka.
- Sortzaileen lurralde eta genero aniztasuna.
  - Genero ikuspegia
- Filmen bestelako ezaugarriak: euskalki aniztasuna, umorea, animazioa, lan esperimentalak, sentsibilizazioa lantzen dutenak...

De Kerum Natura



@ZaldieroX



## Gartzaronen txapelketa bat amaitu eta bestea hasi

Uztailaren 22an hasi zen txapelketa, eta geroztik asteburu guztietan pilota partidu ugari eskaini ditu Gartzarongo frontoian. Guztira, 200 partida baino gehiago.

35. aldia zen Gartzaronen txapelketa hau antolatzen zutena, eta arrakasta handia izan du beste behin ere.

Aurtengoan, azpimarratzeko berri bat izan da, hamairu emakumek hartu dute parte txapelketan, eta lehenaldiz, emakumeen mailan lehiatu dira.

Azaroaren 10ean jokatu ziren finalak Gartzarongo pilotalekuak, eta hemen dituzue emaitzak. Jardunaldi horretan, berriki hildako Jose Mari Munarrizi omenaldia egin zitzaion, Lakita enpresako jabea tea txapelketa honetan laguntzaile izandakoa.



helduen mailako txapeldunak



saritu guztiak ▲

### UMEAK

Otaegi / Antimasberes  
(Ordizia/Barañain) 18

Etxeberría / Ibarluzea  
(Oiartzun/Urretxu) 16

### HAURRAK

Illarregi / Mikelarena  
(Oberena/Erreka) 14

Zubizarreta / Garzia  
(Lazkao) 18

### GAZTETXOAK

Peso / Sudupe  
(Rioja/Tolosa) 14

De La Fuente / Azpiroz  
(Buruzgain/Irurtzun) 18

### NESKAK

Ane Mendiburu / Leire Garai  
(Uharte/Gazteiz) 13

Maddi Unanue / Olatz Ruiz de  
Larramendi (Azpeitia/Eulate) 18

### GAZTEAK

Oskoz / Ganboa  
(Oberena) 22

Zabala / Olano  
(Amezketá) 21

### HELDUAK

Canabal / Aldabe  
(Oberena) 22

Barbajero / Alduntzin  
(Paz de Ziganda / Burlata) 21



nesken txapelketako irabazleak ▲

Bitartean, pilota goxuko txapelketa hasi eta aurrera doa. Azaroaren 10ean hasi zen eta abenduaren 29ra arte partidu ugari jokatuko dira Gartzaronen ere. Tamelez, neska gutxi eman dute izena, bi bikote bakarrik; lehiaketa egin beharrean, erakustaldi partida bat egingo dute finalean, abenduaren 29an.

25 urte bete ditu Gartzarongo pilota goxuko txapelketak. Mistoarekin, hau da, gogorragoa den pilotarekin jokatzen ez dutenentzat sortu zen. Azaroaren 10ean hasi da eta abenduaren 29an izango da finala.



## Erramun Martikorena Basaburuan

Abenduaren 2an, igandearekin, Erramun Martikorena abeslaria Jauntsaratsa etorriko da. Baigorriko bakarlaria gurean izana da lehenago, eta aurten ere kantu-afari batean kantatzeko izan da gonbidatua.

Baxe-nafarraren kontzertua arratsaldeko 19:00etan izanen da Apeztegierriko ganbaran, eta jarraian afariaren tarte izanen da. Txartelak aurrez erosi beharko dira Apeztegierrin 15 euroren truke, edo 20ren truke egunean bertan.



▲ Erramun Martikorena

## Ernaizu kooperatibak Tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokietarako saria jaso du

Nafarroako Gobernuak bi urtean behin eskaintzen duen saria da, eta bere helburua, pertsonen bizimodua hobetzen dituzten ekimen jasangarriek esker ona ematea da. Sari honekin, gainera, horrelako proiektuen garrantziaz kontzientziatu nahi du Nafarroako Gobernuak.



▲ Ernaizu kooperatibako Virginia Gerendiain, Irantzu Perez eta Laura Martirena

Obanosen jaso zuten saria, azaroaren 23an, Ernaizu ordezkatu zuten Virginia Gerendiainek, Irantzu Pérezek eta Laura Martinenak. Baina Basaburuko kooperatiba hau 7 emakumek osatzen dute, eta 11 langile ditu. 2011n sortu zen, Basaburuan integratutako ekimen sozialeko lan kooperatiba da, eta tokian tokiko zerbitzuak eskaintzea da bere helburua. Apeztegierriko denda, Orokietako ostaua, Basaburuko eskape rooma, eta Amaluraren Erronka kudeatzen ditu.

Pulunperen partez Zorionak Ernaizuri! Ez da hau, ordea, jaso duten sari bakarra. 2016an Espainiako Nekazaritza eta Ingurumen Ministerioak “Premio de excelencia a la innovación para mujeres rurales” saria eman zien, Madrilerako joan ziren jasotzera.

Ernaizukoa, gainera, ez da gure inguruak jaso duen sari bakarra. Imozko Udalak Biziberri Navarra Reahabilita saria jaso du, Muskizko Itsasonea etxearen zaharberritzearengatik. Kasu honetan, saritutako 6 proiektuen artean, bigarren saria jaso du

Imotzek. Sari banaketa, Iruñeko Civicanen izan zen, azaroaren 22an. Bertan izan ziren Joxean Iturralde alkatea, Alfredo Alzueta zinegotzia eta Ramón Txokarro udal arkitektoa.



▲ Joxean Iturralde, Ramon Txokarro eta Alfredo Alzueta ezker eskuin



iritzia



**Garazi Arrula Ruiz**

Berria egunkarian

## “Egungo gerrak” (III)

2018ko azaroak 23

Teodoro Galarzak bere memorietan jaso zuen gertaera: 1874ko otsaileko egun batean, Josefa Berroeta txurro-saltzaile tafallarrak artillari bat akabatu zuen labanaz, gizona haren gainera etorri eta indarrez musukatzen saiatzean. Epaileak merkatuko hogeitaka emakume saltzailerik lekukotza hartu zien, eta guztiek esan zuten ez zutela deus ikusi. Egundak kartzelan pasatu ostean, Berroeta aske geratu zen.

Galarza gaur egungo kazetari-tertuliano bat balitz, nekez aurkituko genukeen hain adjektibazio gutxi. Kontrara, aipatu besterik egiten ez dituen datuetan jarriko lukete egun fokua: Berroetari La Gizona esaten ziotela, triapak atera zizkiola eta txurroak mozteko labana erabili zuela. Are gehiago, hedabide jakin batzuetan, Berroetaren ibilerak hartuko lituzkete hizpidetzat, gerrak soldaduegan eragiten dituen premiak eta nahasteak aztertuko eta justizia oztopatzeagatik azokako beste andreen jarrera epaituko lukete, inork deus ikusi ez izana susmagarriki zalantzarria delakoan. Gaur hil izan balu, Berroetak nekez eginen zukeen egun bat kartzelan.

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. Batetik, hedabideen hizkuntza trataera eta informazioaren erabilera; bestetik, zigorgarritasuna eta sistema judiziala. Biak ala biak biolentziaren kudeatzaile boteredun. Bereziki lehenaren mekanismoa ulertzeko gakoak aurki ditzakegu Nerea Barjolaren Microfísica sexista del poderikerlanean, kasu jakin batetik abiatuta aztertu baitu terrore sexualari buruzko kontakizunak nola sortzen eta hedatzen diren, eta biolentzia sexuala termino politikoetan azaldu. Josefa Berroetak alferrik defendatuko luke gaur bere burua, hedabide handiek babesturiko eta gizonen mesederako eraikitako zigor sistema honetan. Alta, txurrogilearen historian bada bere horretan kontu genezakeen zerbait: emakumeon elkatasuna. Indarra galtzen ari da terrore sexuala, feminismoak beste interpretazio batzuk gehitu baitizkio beldurraren errelatoari. Segi ehuntzen, ahizpok.

## Indarkeria matxistaren datuak zenbaki hutsak ez direla, aurtengo “Azaroaren 25”eko mezua

“Ez dira zenbaki hutsak, gure bizitzak dira” lelopean aldarrikatu dute aurtengo “Azaroaren 25”, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Az25 Basaburuko Plataformak gogorarazi duenez, 99 emakume erail dituzte azken 15 urteetan. 11 adin txikiko ere hil dituzte, gainera. Amezti.eusen entzun ditzakezue euren izenak, plataformaren omenaldia haientzat.

Aldi berean, zenbakien atzean emakume eta umeen bizitzak daudela gogorarazteko ‘Performance’ edo protesta antzestu bat egin zuten azaroaren 23an, Aizarozko kultur etxe parean. Indarkeria matxistari aurre egiteko autodefentsa feminista aldarrikatu zuten han bildu zirenek.

Bai Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Programak, bai Basaburuko Bilgune Feministak, azaro osoan antolatu dituzte ekintzak. Gizarte neoliberean izaten diren maitasun inguruko harremanen inguruko hitzaldia, gazte topaketak, zine forumak, ipuin kontalariak, erakusketak, eta abar.

Azaroaren 25ean bertan, Basaburuan, tipi taupa feminista antolatu zuten. Ibilaldi txiki bat, soinean indarkeria matxistaren aurkako eskua zeramatela. Apeztegi berritik, Jauntsarastik atera ziren goizeko 9:30ean, eta ibilaldi zirkularra egin ondoren, bertara itzuli ziren 11:30ean, ondoren Iruñeko manifestaldira joateko. 12:00etan hasi zen Gaztelu Plazatik.



▲ Azaroak 25eko kanpainaren kartela



▲ Aizarotzen egindako performancea





## Badoa Info7, badator irrati berri bat

Orain hamahiru urte, Aztibegia elkar-teak Info7 irrati martxan jarri zue-nean, helburu nagusi bat jarri zion bere buruari: FMz emititzeko legaltasun osoa izango zuen Euskal Herri mailako irrati proiektu bat sortzea. Urtetako lanaren ondorioz, legaltasun osoz jarduteko baldintzak lortu dira Hego Euskal Herrian, honenbestez, Aztibegia elkar-teak erabaki du, Info7 irratiaren etapa itxi, jauzi bat eman, eta irrati proiektu berri bat sortzeko lanean murgiltzea.

Urte honen amaierarekin batera ixilduko da Info7 irrati eta urte berriarekin bat abiatuko du bidea irrati proiektu berriak. Honek, beste eragile batzuekin batera, Hego Euskal Herrian legaltasun osoz emititzeko baimenak lortu ditu; zehazki, EAEko zabaltasun osoan emititzeko lizentziak, eta Nafarroako zati

batean emititzeko baimena. Ondorioz, emisio lizentzia gehien dituen irrati ez-publikoa jaioko da laster.

Info7 Irratiaren etapa abenduaren 15ean itxiko da, bertan etengo baita honen emisioa. Hala esan dute Info7ko lankideek Donostian egindako agerral-

dian: “Urruñako estudio nagusietatik egingo den azken saioarekin isilduko da Info7, eta bertara gonbidatu nahi ditugu irrati partaide izan diren guztiak; langile, kolaboratzaile, bazkide, laguntzaile zein entzuleak. Guztien artean, eta festa giroan, itxiko dugu garai hau, berriari bide emateko”



Info7 irrati lan-taldea, agerraldian (FOKU)



CAMPING - KANPINA

**IZARPE**

ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA



Zorionak eta urte berri on!!!!

**GABON ZAHARRA 2019**

00,00etatik aurrera

Kopak, musika ona eta giro aparta!!!



# Euskara eta kirola

*batera ezinak?*

***‘Euskara eta kirola’ jardunaldia jaso zuen Larraintzarko zentro zibikoak azaroaren 15ean Euskarabideak eta Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak antolaturik. Euskarak kirol arloan leku gutxi izanik, egoera hori nola irauli eztabaidatzen aritu ziren aditu, interesatu eta euskara zein kirol teknikariak.***

Eskualdeko bi ordezkari izan genituen hizlari, Asier Pazos Ultzama aldeko kirol teknikaria eta Arantxa Martinez Ultzamako alkatea. Azken honek ireki zituen jardunaldiak, bertaratutako guztiei ongi etorria emanez eta Udalak euskararekiko duen konpromisoa berretsiz. Beste bi ordezkari instituzional zituen mahaiaren alde banatan, Ruben Goñi Nafarroako Kirolaren eta Euskararen Institutuko zuzendaria eta Mikel Arregi Euskarabideko zuzendaria, jardunaldien antolatzaile gisa.

## IKERKETA

Segidan, edukiari hasiera emateko, Maite Indak, EMUN taldeko aholkulariak, hartu zuen hitza Nafarroako Gobernuak egindako ikerketa baten ondorio nagusiak aurreratzeko. Izan ere, ikerketa hori ez baita oraindik publiko egin, baina hausnarketa bideratuko lukeelakoan, laburpen moduan azaldu zuen. Nafarroako eremu misto eta euskalduneko udal eta kirol elkarteei bidali zitzaizen galdetegiari emaniko erantzunak aztertzen dira ikerketa honetan.

**“Eremu euskaldunear aritzen diren monitoreen %80 dira euskaldunak, baina eremu mistoan %30 baino ez dira”**

68 galdetegi bidali zizkieten eremu euskaldun zein mistoko kirol eragileei (Taldea, elkarte, klub, mankomunitate...), horietako %61 eremu euskaldunear egin ziren, eta %38 mistoan. Datu interesgarri batzuk ematen ditu ikerketak. Batetik, euskaraz egiten den eskaintza %89koa

da eremu euskaldunear, eta %54koa mistoan. Bestetik, eremu mistoan kirol arloan sortzen diren euskarriak gaztelera hutsez dira %40an. Hirugarrenik, elebitan egiten den kirol eskaintza, euskararentzat kaltegarria suertatzen dela ondorioztatzen da, gaztelarak nagusitasuna hartuz, hiztun erdaldunek taldeak erdaldundu egiten baitituzte. Eta azkenik, kirol begirale edo monitoreen hizkuntza gaitasunei ere erreparatzen die ikerketak, eremu euskaldunear aritzen diren monitoreen %80 dira euskaldunak, baina eremu mistoan %30 baino ez dira.

Ikerlan honen ondorioen arabera batzuk lirateke hartu beharreko neurriak euskarak kirolaren alorrean aurrera egin dezan. Horien artean monitore euskaldunen poltsa bat eratzea, elkarteei prestakuntzarako, itzulpenetarako eta hizkuntza paisaia

euskalduntzeko laguntza eskaintzea eta interesatuei titulua euskaraz ateratzeko aukera eskaintzea leudeke. Oro har, Maite Indak azpimarratu zuenez, “Elkartek prest daude euskararen erabilera zabaltzeko, baina laguntza behar dute”.

## ESPERIENTZIA POSITIBOAK

Jarraian, hizkuntza gutxituak eta kirola uztartzen dituzten lau esperientziaren berri izan genuen. País Valencià, Gasteiz, Lizarra eta Ultzamal aldeko esperientziak entzuteko aukera izan genuen, eta denen artean hausnarketarako bidea ireki zuten. Valentzian ezartzen ari diren ‘Escola Valenciana’ ekimenaren berri emateko Vicent Moreno etorri zitzaigun. Ikasgelatik kanpo ere haurrak valentzieraz (País Valencià valentziera deitzen zaio katalanari)



▲ Jardunaldiko hizlari guztiak





▲ Mikel Arregi, Arantxa Martinez eta Ruben Goñi

aritzeko helburuz, atsedenaldiaren denboran jolas kolektiboek ekimena sortu dute zenbait eskolatan. Hala nola hemen, oso eremu erdalduna izaten da jolastokia, normalean kirola egiteko erabiltzen dena, betiere erdaraz. Hori iraultzeko, beste kirol eta jarduera fisiko batzuk bultzatu dituzte, haurrak euren artean antolatuz egunero jarduera ezberdinak egiteko, eta horien bidez valentzieraz jarduteko. Izan ere, ezinbestekoa ikusten dute kirolean txikitatik valentzierazko gaitasun linguistikoak garatzea, hutsune handi bat baitago hor.

Bigarrenik, Gasteizko 'Araski' esperientzia azaltzeko Amaia Castresana etorri zen. Saskibaloia ere oso eremu erdalduna dela azaldu zuen, eta monitoreen artean ere euskaraz aritzeko zailtasunak zeudela aipatu. Azken urteotan monitoreak

euskalduntzen aritu dira, eta horrekin batera, euskarri guztiak elebitan idatzi. Saskibaloian erabiltzen diren terminoen euskara-gaztelera hiztegi bat ere sortu dute, saskibaloian euskara integratzeko helburuz.

Hirugarrena Lizarrako alkatea izan zen, Koldo Leoz. Herriko lau ikastetxerik eskaintza bera egin zaie (bi euskaldun eta bi erdaldun), jarduera fisikoa ardatz izanda, norgehiagokatik aldentzen diren baloreak jorratzeko eta jarduera ezberdin asko egiteko proiektu gisa sortu zen Brinka proiektua. Eta euskara izan da beste ardatzetako bat, ikastaro gehienak euskaraz egiten baitituzte, eta nahiz eta haur batzuk euskaraz aritzeko gaitasunik ez izan, hauek euskarazko ikastaroetan ari dira, komunikatzeko erraztasunak jarri baitizkiete.

Eta azkenik, Asier Pazos izan genuen, Ultzama aldeko kirol teknikaria. Berriz izanagatik ere, ederki azaldu zuen zein den euskararen egoera eskualdean, eta zein den gizarte zerbitzuek egiten duten eskaintza. Izan ere, hauen ardatza euskara dela aipatu zuen, teknikari guztiak euskaldunak baitira. Ikastetxea D eremuan izanik, honen ardatza ere euskara da, baina errealitatea da gaztelera ugari aditzen dela. Honen inguruan sakonago aritu gara Asierri egin diogun elkarrizketan.

## ONDORIOAK

Talde txikietan bildu ziren gero, eta entzundakoaz hausnartu ondoren, jardunaldien ondorio nagusiak hauek izan ziren:

1. Sentsibilizazio kanpainak behar dira, kirolaren bidez euskara sustatzeko garrantzia azpimarratzeko
2. Kirol arloan euskara planak diseinatzeko aholkularitza behar dute elkarteek
3. Kirol elkartei hizkuntza irizpideak jasotzeko proposamena egin behar zaie
4. Kirol eta euskara teknikarien arteko elkarlana sustatu behar da
5. Monitore euskaldunen lan poltsa bat eratu behar da, euskara titulua eskatuz
6. Euskarazko kirol eskaintza ordutegi zentraletan jartzea eta kirol arrakastatsuenetan
7. Nafarroan koordinazio gune bat eratu behar da kirolean euskara sustatzeko neurriak lantzeko

**EUSKARA ETA KIROLA JARDUNALDIA**  
Aiarak & Lanarburu

**IKERKETA**

**ESPERIENTZIAK**

**ONDORIOAK**

Araski dute ageri egiteko


Kudean euskarazko erabiltzeak ezinbestekoa behar du

▲ Make it Visual taldeko Miren eta Aarek eginiko horma irudia











# Ruanda *aldapan gora*

Isabel Oiartzun Azpirozek bi astez Ruandan izateko aukera izan zuen ekainean, eta han bizi izanikoa kontatzeko eskatu diogu. Jatorriz Erripakoa da, Karakotxekoa, baina Aritzun bizi da. Larraintzarko eskolan irakasle, duela 6 urte jubilatu zen, eta orain 66 urte ditu. Erretiratu bai, ez baitu eskolan lan egiten, baina ez da geldirik egotekoa. Oraindik lanean ari zela, Medicus Mundirekin kolaboratzen hasi zen, eta erakunde honek, hain zuzen ere, eman dio Ruandara joateko aukera, Nemba eskualdera. Poliki-poliki aurrera doa lurralde afrikar hori; Oiartzunek kontatu digunez, saiakera berritzaile ugari jartzen ari dira abian, batzuk porrot egin dutenak, baina aurrera egiten duten beste batzuk ere bai. Batez ere, osasunean hobekuntzak sumatzen ditu, eta antolakuntzan badugu zer ikasi haiengandik. Gerra eta genozidioaz nahiago du ez gehiegi hitz egin, hori baino askoz gehiago baita Ruanda.

Kasik kasualitatez hartu zuten Isabel Oiartzun, Ruandara bidaiatzeko. Medicus Mundi erakundeak medikuak eta osasun arloko jendea behar izaten du bere proiektuetarako, baina azken momentuan hara joatekoazen batek huts egin zuen, eta Isabeli proposatu zioten haiekin joatea. Maiatzaren bukaeran esan zioten, eta ekainaren erdialdean abiatu zen Afrikara.

H a n g o  
osasun  
etxeak

bisitatu zituen taldeak, bertan nola lan egiten duten ikusteko.

## ● GARBITASUNA

Kigalira, Ruandako hiriburura, iritsi eta deigarria egin zitzaion lehenengo gauza garbitasuna izan zen. “Ez zen zaborrik ikusten kalean, eta zakarrontzietan ere hondakin gutxi ikusten ziren. Gobernuak plastikozko poltsak debekatu ditu, paperezkoak bakarrik erabiltzen dituzte, eta nabaritzen da. Bestalde, kontsumo gutxi dago, eta horrek hondakin gutxiago sortzen laguntzen du. Eta eskerrak, zabor sistemarik ez baitago bertan”.

## ● EKONOMIA

Soldatapeko lan gutxi dagoela nabarmentzen du Isabel Oiartzunek, dirua lortzea zaila dela. “Familiek baratzeak dituzte, eta norberaren kontsumorako lantzen dituzte lurak, eta soberakinik badute, saltzen ahal dituzte, baina ez dituzte asko, biztanle ugari baita bertan, eta lur gutxi dute. Babarrunak, tomatea, piperra, amerikar jatorria duten produktuak dituzte. Batez ere emakumeak dira baratzean lanean aritzen direnak. Dena eskuz egiten da, eskualde menditsua delako eta ezin dutelako makinarik erabili. Bi astean traktore bakarra ikusi nuen!”, azaltzen digu.

Norberaren kontsumoko sistema horretan, gobernuak laguntzen saiatzen ari da, “behiak banatu ditu biztanleriaren artean, esnea izateko eta soberan dutena saltzeko. Eta ez bakarrik familiei, osasun etxeei ere oparitu dizkiote animaliak. Baina ez dakit horrek

aurrera egingo duen, animaliek ere asko jaten baitute, eta laguntza baino gehiago, zama bat izaten ahal dira. Osasun etxeak gobernuak emaniko azindak oparitu dituzte, adibidez. Askotan entzuten ziren behiak marru egiten, ez dakit susara zeudelako, edo gose zirelako”.

Gobernuaren beste ekimen berezi bat kooperatiben sustapena da. Horretan ere, probak egiten ari dira: “zerri kooperatiba bat sortu zuten, adibidez, baina horrek porrot egin zuen asko jaten dutelako. Erle kooperatibak sortzen ari dira orain, denda asko ere kooperatibatan egituratzen dira...”

Herriak oso sakabanatuak daude Ruandan, eta horregatik, askok bizikleta-taxi gisa lan egiten dute, baita karga garraiatuz ere.







▲ *Maila ezberdinetako baratze borobilak egiten hasi dira, lurra hobeto aprobetxatzeko, beharbada*

## ● OSASUNA

Esan bezala, osasun etxeak bisitatu zituen boluntario taldeak. Eta, hain zuzen ere, osasun laguntza nabarmenki hobetzen ari da Ruanda azken urteotan. Malaria kontrolatzea lortu dute, esate baterako, eta Hiesa murrizteko programak jarri dituzte abian. “Lehen malariak hartzen zuen indar guztia, behin kontrolatua, gainontzekoan lan egiteko aukera sortu da”. Eta higienearen garrantzia lantzen ari dira, batez ere, “plastikozko



▲ *Emakumeak merkaturako bidean*

ontziak jartzen dituzte kalean zehar, jendeak eskuak garbitzeko ohitura hartzeko; etxean gaixoren bat badago, gela aireztatu behar dela gogorarazten da osasun etxeko paneletan, eta abar. Gainera, horren harira, Ruandan arnasketa arazo handiak dituzte, etxeek tximiniarik ez dutelako”.

Aipatu dugu Nemba eskualde menditsua dela; horregatik, badira ambulantiak zeharkatu ezin dituzten herriak, eta horietara iristeko anda-eramaileak izaten dira. Lau edo zortzi pertsona joaten dira, txandaka, esku-ohatzean eriak garraiatzeko.

Haurdunaldiak kontrolatzeko ere ahaleginak egin dituzte. “Afasia arazo asko izaten dituzte umeek, jaiotzerakoan, arnasarik gabe geratzen direlako. Horregatik, haurdun dauden emakumeak kontrolatzen hasi dira, eta arazoren bat atzematen baldin badute, zentro batean gelditzen dira haurdunaldian, erditu arte”. Batez beste, bost eta sei seme-alaba izaten dituzte Ruandan, baina gero eta haur gutxiago izaten dute, duela gutxi zazpikoa baitzen batez bestekoa.



*Bizi-taxia* ▲



*Erle kooperatiba bat Ruandan* ▲



▲ *Batez beste, bospasei seme-alaba izaten dituzte Ruandan*



# Juanito Eleta eta Kontxi Villa

Orain lau hilabete atera genuen Juanito Eleta eta Kontxi Villabonari egindako elkarrizketaren lehen partea. Bigarrena atera behar, eta hau dela eta bertzea dela, ez dugu atera ahal izan gaur artio. Hemen dakargu bigarren partea, baina denetarako tokirik ez eta batez ere Kontxi Villabonarekin hitz egindakoarekin hornitu ditugu bi orrialde hauek.



▲ Olagueko herria. Berriki artio errepide nagusia karrika estu honetatik pasatzen zen.

## ● EZKONTZA

**Juanito, Olaguera etorri zinenean, 1955. urtean, izanen zenuen andregaia.**

Andregaia? Egia errateko ez dakit andregaia banuenik ere! Badakizu zer erraten zidan Kontxitak? Ez zuela ezkondu behar, alajaina! Ez nintzen andregaiarengana joatea ere ausartzen.

**-Ja, ja, ja!**

-Ja, ja, ja! Beti erraten zidan bera ez zuela ezkondu behar eta! Hala ere, azkenean erdietsi nuen.

(Andrea sartzen da hizketan)

-Bai, aizu, nik gainera egia erraten nion. Zeren nik nire dudak baintuen: moja joan edo ezkondu. Nik ez nuen engainatu nahi!

Berriz Juanito:

-Ez zuela ezkondu behar, baina moja ere ez zen joaten eta! Eta moja joaten ez zenez, nik nirearekin, ez utzi, eta beti segi!

**Zein urtetan ezkondu zinen?**

Orain 52 urte, hau da, 1966. urtean. Ilbeltzaren 21ean.

*Eta Kontxita Olaguera etorri zen, Juanitoren etxea. Garai hartan oraindik Juanitok bizi zituen gurasoak eta anaia bat eta arreba bat ere bai etxean, David eta Consuelo.*



**Txurdan**



▲ Bikotea

## Hiztegia

**Elkarrizketa:** entrevista

**Erizaina:** enfermera

**Zangosagarra:** pantorrilla

**Aldikako eskola:** eskola de temporada

**Zimiko:** Atximixka, zimurtzia

**Oinordeko:** heredero



# bona (eta II)

## Kontxitareen haurtzaroa eta gaztaroa

Kontxita, hartzuna eta buru argikoa dugu. Francisco Villabona eta Maria Mezkitzen alaba. Lehen Iraizozkoa eta bigarrena Gerendiangoa.

Haurtzaroaz eta gaztaroaz galdetu diogu batez ere. Kontatu diguna oso interesgarria iruditu zaigu garai hartan emakumearen izatea eta egitekoa zer zen eta nola zen argitzeko.

### **Kontxita, zu Gerendiango zein etxetakoa zara?**

Ni Carrero erraten diotenekoa. Lehen *Ehuntzalearena* zen, gure aitona ehuntzalea baitzen.

### **Zer familia zineten?**

Bortz senide izan gara, lau mutiko eta ni: Javier, Kontxita, Fernando, Eleuterio eta Felix.

### **Erran didazu zure ama eri antza zela.**

Bai, ahul samarra, beti ez-ongi egoten zen. Baina medikutara ez zen inoiz joaten. Orduan beti Auzako kuranderarengana joaten zen jendea. Gure ama bai behintzat. Beti horrela eta ni haurrak kasu egiten egon behar!

### **Beraz, zuri tokatu zitzaizun amaren ordezkaria izatea, erizaina, haurtzaina, sukaldaria ...**

Bai, bai, denetatik.

### **Noiz hasi zinen eskolan?**

Sei urtetan, denak bezala. Baina oso gutxi ibili nintzen eskolan, zazpi urtetan zangosagarrean infekzio bat izan eta ezin sendatuz luze ibili nintzen, ia urte bat. Operazio bat egin behar izan zidaten.

### **Gero berriz hasi zinen eskolan.**

Bai, baina egun bat bai eta zortzi ez, hori zen nire okerra; ama gaizki eta ni etxean gelditu behar. Eltsora joaten ginen eskolara, baina jarri zuten aldikako eskola Gerendiainen eta neguan gehiago joaten nintzen. *Apezetxeko* gela batean izaten ziren eskolak. Eta *Txankarneko* ezkaratzean ere bai. Eugenia Irure, Lizasoko alaba izan genuen maistra.

### **Eskolaz landa, doktrina ere ikasi beharko zenuten?**

Bai, eta oso ongi gainera. Apeza Don Juan Miguel Gerendiain izan genuen, Iraizozko *Martixeneko* semea. Meza eman eta jubilatutako artio egon zen Gerendiainen apez hau. Nik 14 bat urte izan nintzen hil zenean.

### **Kontxita, baina oso menpeko ibili zinen zu haurtzaroan.**

Halaxe ibili nintzen, bai. Nik neronen ardurapean ibili nituen ni baino ttikiagoko senideak. Beti etxean senide ttikiekin, eta pentsa ezazu, kanpora atera behar nituela eta, aprobeztatzen nuen lagunekin-eta egoteko. Ni jostatzeraz-eta ez nintzen inoiz ateratzen ahal. Sehaskatik haur ttikia hartu, batzuetan zimiko bat egiten nion iratzarri zedin, eta horrela banuen aitzakia haurrarekin karrikara joateko. Haurra besoetan har eta karrikara!

### **Eta haurtzaroa pasa, gaztaroa iritsi, eta zu beti etxean.**

Bai, dirudienez ni nahita nahiezkoa nintzen etxean. Ni beti etxean. Han eta hemen sar nintekeela lanean, baina ni beti etxean, beti etxeko lanetan.

### **Lanera ateratzeko aukera franko bazen garai hartan. Zer aukera izan zenuen?**

Horixe! Nire bila etorri zitzaizkidan Golfetik, Gerendiango esnetegiko fabrikatik ...eta beranduago Danonetik.

### **Eta ezinegona ez zitzaizun sortu? Nire bizi guzia horrela izan behar du? Bizi guzi-guzia amaren zerbitzuan?**

Ni oso sentibera nintzen eta ez nezakeen ama utzi. Ama eri eta bere burua baizik ez zuen ikusten. Gure aita, diferentea zen, baina...

Gure amak ikusten bazuen ni norabait joan behar nuela, oraindik gaizkiago jartzen zen. Eta ni, amak okerrera egiten zuela ikusi eta, ez nintzen ateratzeko gai izaten.

### **Eta zer pentsatu zenuen, ama hil artio bertan beharko zenuela?**

Ez, ez. Ni moja sartzekotan ibili nintzen. Baina beti atzera egiten nuen.

### **Eta ezkontzeko? Oraindik zailagoa izanen zitzaizun.**

Ezkontzeko? Zer erranik ez! Hogei urte baino gutxiago nituenean izan nituen begiratzen ninduten mutilak, baina... ezinezkoa etxeko giro harrekin. Eta nik nirekiko, ez naiteke gizongaiekin has, ez naiteke gazte ezkondu... eta horrela.

### **Juanito zure atzetik eta, ez zen aspertu?**

Ez, ez zen aspertu. Oroitzen naiz nola *Pilarekotan*, Zenozko plazan ezkontzeko eskatu zidan, baina erran nion: nik ez dizut hitzik emanen, ezkontzeko asmorik ez dut, eta ez dut inorekin konprometitu nahi. Oso gutxitan ateratzen naiz etxetik eta egun bakar horietan librea izan nahi dut.

### **Eta amak nola ikusten zituen izan zenituen ezkongaiak?**

Buf, liztorrak balira bezala uxatzen zituen. Lehenik sarrera igual ematen zien, baina gero...

### **Eta zuk ez zenion deus erraten?**

Nazka-nazka egin ninduen eta egun batez hala erran nion: etxeko sarrera ematen diezu eta gero moztan erabat, zer egin behar dut nik? Aizu, etxetik joatea nahi ez baduzu, egin iezadazu oinordeko eta etxean geldituko naiz.

Baina hori ere ez zuen nahi, semea nahi zuen etxerako. Orduan erabaki nuen etxetik joan egin beharko nuela.

### **Eta bakar-bakarrik, nola ausartu zinen?**

Ez, herriko apezak, Don Gregorio Larnagaraik ere lagundu zidan eta ez gutxi. Eta gure aita espirituala izanik, erran zidan: ezkondu behar duzu! Amari erran behar diozu!

Eta eguna eta guzi jarri zidan errateko, eta egun hartan oso gaizki jarri nintzen, botaka. Eta aitak galdetu zidan zer pasatzen zitzaidan. Aita aspalditik jakitun zen bizi genuen egoeraz, oso ona zen gure aita. Eta horrela, egun hartan, aitaren laguntzarekin erran nion amari.

Eta apezak ere amari egoera bere gordinean azaldu zion. Orduan etsi hartu zuen amak.

Bertze kontu batzuk gorde behar izan ditugu.

Horrela egin diogu elkarrizlagur, laster artio erranez. Juanito eta Kontxita, segi bizkor.





# Negu bete-betean

## hilen dugu txerria

Txerriak dena omen du on. Hori da esaldia eta ez da batere harritzekoa, jakina! Hainbeste mokadu on hiltze egunean eta hainbeste zerriki zati gerorako gordetzen direnak: solomoa oliotan, besoak eta hankak, berriz, gatzetan, hestebeteak piper gorriekin (txistor, txorizo, birika...) Eta baita gantzak ere, urtu eta maskurian gordetzeko, eltzekariari emateko edo beste hainbat gauzetarako.

Den-denak gordetzen dira, ondoren, egunero-egunero urdaia jateko, eta udako lan gogorretarako, berriz, urdaiazpikoa eta solomoak, neke guzien aringarri.

Bai, aipatu dugu hil eta berehala edo ondoko egunetan jaten direla zenbait zerriki puska: hiltzaile eta laguntzaileendako gibela, hil lanak egin ondoreko, eta hurrengo egunetan, odolkiak edo tripotak, haltsarrak, giltzurriak, anderraia, azpixuna... Eta papoa zein bikaina den zartarian ederki frijituta!

Eta hexurkiaren zatiekin, zopa egin eta ondoren, berekin dituen gihar puxkekin, tomatea eman eta... ez, ez da makala janaria!

Eta belarriak, pattak, matail azala... berehala jaten ez badira, gatzatu eta horiek ere udarako gordetzen dira, bigarren plater eder bat egiteko.

Aurten ere hilen dugu zerria, neguaren bihotzean, gogoaren altxagarri eta osasunari topa egiteko, azken teoriak hori baitiote, txerriak bezain haragi osasuntsurik ez dagoela. Hori bai, neurrian, gauza guziak bezala.

Eta, irakurle, ez dakigula gerta erasoarrari bezala:

*Ez duguna bagiñu,  
txerri bat il bagiñu,  
urdaia jain (janen) giñun.*

Txerria lasai hil, eta neguari ihes eginen diozu, eta udan hobeki ibiliko gara, solomoz eta urdaiazpikoz asean.

Eta esanen dizut badaezpada, ez atzendu ardo frexkoa, zerrikia jatean hain beharrezkoa duguna. Eta herri honetan zer esanik ez. Topa!



### Hitzak:

Denok ere ikasteko premian gaude, hortaz azpiko hitzak. Etzanean diren horiek, ia denak, hemengo euskaldun zahar onek badakizkitez.

**Mokadua:** bokadua: ahamena

**Hestebetea:** enbutido

**Gantza:** manteca

**Maxkuria:** Maskuria: vejiga

**Eltzekaria:** Eltzean, barazkiekin eta kidekoekin prestatzen den janaria.

**Haltsarra:** birika: pulmon

**Giltzurria:** riñon

**Anderraia:** pleura (sarea gisako bat)

**Azpixuna:** Azpizuna: solomillo

**Papoa:** papada

**Zartaria:** zartagina

**Hexurkia:** Hezurkia: hemen zopa egiteko ibiltzen den bizkar hezurra puxkari esaten zaio.

**Matalla:** mataila: Aurpegiaren bi aldeko haragiari.

**Irakurlea:** lector

(Maxkuria, azpizuna, hexurkia, matalla, busti egiten ditugu x edo ll.rekin.)

**OHARRA:** Gaztea baldin bazara, ikasi hitzak. Eta zaharragoak probatu nahi badituzu, galdetu, ea zenbateraino dakiten! Nik kontatutakoaz gain, beste kontu batzuk ere aterako dizkiezu zaharragoei.





# Euskaraldia

## Euskaraldiak txapadun bularraz bete zuen gure eskualdea

Azaroaren 26koak dira azken datuak, eta horien arabera, 232 lagunek eman zuten izena Odietan, Ultzaman, Atetzen, Anuen eta Lantzen. Horietatik 169 ahobizi gisa, eta 63k belarriprest rola hartuta. Basaburuan, berriz, 191 partaide izan dira; 132 ahobizi, eta 59 belarriprest. Azkenik, Imotzen 79 lagun, 58 ahobizi, eta 21 belarriprest.

Euskal Herri osoan ia 200.000 pertsonak jantzi dute txapa; %75ek ahobizi gisa, eta %25ek belarriprest rola hartuta. Nafarroan 20.500 baino gehiagok, dauden 70.000 euskaldunen artean. Kopuru absolutuetan Gipuzkoa izan da lehena, ia 90.000 euskaltzalek eman baitzuten izena Euskaraldian. Bizkaian 70.000 inguruk, Araban ia 20.000 lagunek eta 5.500 Iparralden.

Euskaraldiaren hasiera jai giroan egin zuten, Basaburuan Trikipoteoa abiatu zen Apeztegierritik, Aizarotza. Bertan, Lazy Throatzen kontzertua izan zen hasiera ekitaldia. Ultzaman, Unai Otegi eta Edurne Arzozen kontzertuak hasi zuen Euskaraldia, Larraintzarko Bentan. Gainera, azaroaren 30ean bertsoafaria izan zen Lizason, Nerea Elustondo eta Alaia Martinekin; eta abenduaren 3an, Euskararen Eguneko besta ospatu zuten Eltzaburuko Elkartearen. Basaburuan, Erramun Martikorenaren kontzertuarekin agurtu zuten Euskaraldia, abenduaren 2an.


11 egunez, abenduaren 3a arte izan da Euskaraldia. Euskal Herri mailan egiten den lehendabizikoa da, hainbat ohitura aldatzeko helburuarekin, esate baterako,

elkarrizketa elebidunak posible direla erakustea. Betiko erronkak ere izan ditu Euskaraldiak, euskara dakitenek baina hitz egiteko ohiturarik ez dutenek euskaraz aritzea, adibidez.

Hilabeteetan egindako lanaren ondorioa da Euskaraldia. Baita gure eskualdean ere. Ahobizi eta Belarriprest rola prestatzeko tailerrak, hizkuntza gatazken ingurukoak, jaiak,... ekitaldi ugari eta ugari egin dira urte osoan.



### EUSKARALDIKO UDALERRIAK



ITURRIA: GAIÑEGBA, EUSKARALDIA, ERREKAKOZORRI/LANDIA

▲ Euskaraldian izena eman dutenen mapa



## “Ultzama Nafarroan kirolaren erreferentzia bat izan dadin lortu nahi dugu”

Lakuntzan jaioa da Asier Pazos Arbizu, ekainetik hona mankomunitateko kirol teknikari lanetan ari dena. Esku pilotan aritua eta orain errugbian, bietan goi mailan. Ordizia Errugbi taldean aritzen da orain.

### • NOLA IRITSI ZARA HONA?

INEF (Hezkuntza Fisikoa) ikasi nuen Leonen, eta gero goi errendimenduko master bat. Ordiziako errugbi taldean aritzen naiz jokalaria eta prestatzaile fisiko gisa. Baina lan eskaintza hau atera zenean, izena ematea erabaki nuen, azterketa prestatu eta probatzea. Eta plaza atera nuen. Ekainetik aurrera ari naiz hemen, eta Ordiziako lanarekin konplimentatzen dut.

### • ZER AURKITU DUZU HEMEN?

Hasteko, uste dut kirol eskaintza handia dagoela eskualdean. Horren eskualde txikia izanda harritu ninduen horrenbeste kirol eta ikastaro eskaintzea, baina ikusi dut lotura handia dagoela kirolarekiko.

Orain arte, zein lan egin den aztertzen aritu naiz, eta ikusi dut gauza asko ongi daudela, eta beste batzuek aldaketa behar dutela, eta beraz, horrekin buru belarri.

Hasi eta berehala tokatu zitzaidan triatloia prestatzea, eta ikasturte berrirako jardueren eskaintza, horrek dakarren kontratazio kontuarekin. Izena emateko era aldatuko dugu datorren urtean, antolatuago egon dadin, eta internet bidez zein bulegoan egingen dugu.

### • KIROLESKAINNTZA ALDATZEKO ASMOA DUZU?

Aurretik zeudenak mantendu eta beste batzuk gehitu ditugu, monitore eta udalen proposamenei jarraituz. Sabel dantza, dantza urbanoa, kirol anitza, taekwondo... izan dira aurtengo eskaintza berriak.

### • ZENBAT PERTSONA ARI DIRA KIROL JARDUERETAN?

Datu zehatza bilatu beharko nuke, baina 250 eta 300 pertsona artean ari dira ekintza finkoetan. Eta horretaz gain, antolatzen diren jardunaldi konkretuetan jende gehiagok parte hartzen du.

### • BIZTANLE GEHIAGOKO ESKUALDEETAN, NORMALENA DA KIROL KLUB EDO ELKARTEAK EGOTEA, HEMEN BURUZGAIN PILOTA TALDEA BESTERIK EZ DAGO...

Bai, normalean hala izaten da,

baina hemen kirol teknikariaren ardurapean geratzen dira kirol jarduera guztiak. Gainera, aurtan, Buruzgain taldearekin hitzarmena sinatu dugu mankomunitatearen barnean integratzeko, eta beste jarduera bat bezala eskaintzeko. Eta beste hitzarmen bat ere itxi dugu, Beti Onak taldearekin. Izan ere, azken urteotan Beti Onak taldeko entrenatzaile bat etortzen zen Ultzamako eskubaloi taldeko monitore izateko. Eta orain, hitzarmena eginik, forma legala ematen diogu kolaborazioari, eta etorkizuna eman. BRT errugbi taldearekin ere hitzarmena daukagu.



Asier Pazos Ultamako udaletxe aurrean ▲



### ● **BESTE KIROLETAN ERE HALAKO HITZARMENAK EGITEKO ASMOA DAGO?**

Bai, helburua da ahalik eta kirol gehienetan egitea, baina zailtasunak ere baditu. Izan ere, monitoreak hona etorri eta txapelketetara joatea eskatzen dugu guk, eta Iruñerriko talde askok ezin digute ziurtatu hori egiteko monitorerik izanen ote duten.

### ● **KIROL JARDUERA ASKO ERDARAZ EGITEN DIRA, ZAILA DA MONITORE EUSKALDUNAK LORTZEA?**

Kontratatzeke orduan, minimo batzuk eskatzen ditugu, eta euskara badago minimo horien baitan. Hala ere, batzuetan minimo horiek betetzea lortzen dugu, baina askotan ezinezkoa izaten da minimo horiek betetzen dituzten pertsonak lortzea, eta beraz, hona etortzeko gogoia dutenekin geratzen gara.

### ● **MONITORE EUSKALDUNEN LAN POLTSA BAT ERATZEKO PROPOSAMENA ATERAZEN 'EUSKARA ETA KIROLA' JARDUNALDIETAN, ZER IRUDITZEN ZAIZU?**

Oso garrantzitsua iruditzen zait, eta kontratatzeke orduan minimo horiek betetzea erraztuko luke. Bestetik, uste dut beste arazo batzuk ere badaudela monitoreak lortzeko orduan, eta horietako bat dirua da. Izan ere, Iruñetik edo beste nonbaitetik etorri behar badira, kilometrajea gastu bat izaten dute, eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak beregain hartuko balu gastu hori, errazago litzateke guretzat monitoreak lortzea.

Ultzama oso polita da hemen egoteko, baina monitore askok ez dute etorri nahi, Iruñerriatik etorri behar baitira. Beraz, egunean ordu baterako edo bi ordurako joan-etorria egitea merezi ez duela ondorioztatzen dute askok. Horregatik, uste dut hona etortzea erraztu behar zaiela.

### ● **HALA ERE, HEMENGO MONITOREAK ERE BADITUGU EZTA?**

Bai, errugbian, dantzan... oso garrantzitsua da hemengo jendea animatzea begirale izatera. Interesatuak baleude, guk prestakuntza eskainiko genuke, proposatzen den ekintza oro lortzen saiatzeko.

### ‘● **EUSKARA ETA KIROLA' JARDUNALDIETATIK ZEIN BESTE ONDORIO ATERATZEN DUZU?**

Argi dago euskararen erabilera ahul dagoela kirol munduan, eta lan handia dugu aurretik. Ni bat nator jardunaldietako lan taldeetan ateratako ondorioekin, eta Nafarroa osoko kirol eta euskara teknikarien eginbeharra da euskara kirol arloan sustatzea. Hemen, Felix euskara teknikariarekin, eta beste teknikari guztien artean elkarlana egin beharko dugu arlo guztietan euskara bermatzeko, eta horretan ari gara.

### ● **FUTBOLA DA NAGUSI GURE GIZARTE HONETAN, BADA MODURIK NAGUSITASUN HORI HAUSTEKO?**

Gu saiatuko gara bestelako ekintzak sustatu eta jardunaldi bereziak egiten. Kirolaren asteburuan, esaterako, futbola eta pilota, kirol nagusiak izan ziren, baina bestelakoak ere bai: herri kirola, errugbia, eskubaloia...

“

**Ultzama oso polita da hemen egoteko, baina monitore askok ez dute etorri nahi**

”

Futbolarekin batera esku-pilotak eta errugbiak ere arrakasta izan dute hemen, eta maila txikiago batean herri kirolak, eskubaloiak... eta bide horretan segitzeko asmoa dugu, eskualdean egiten den kirol orori balioa emanaz.

### ● **AMAITZEKO, ZER DUZU ESKU ARTEAN ORAIN?**

Nafarroan jendeak badaki Ultzama non dagoen, baina kirolean erreferentzia izan dadin lortu nahi dugu. Horretarako, kirol ekimen garrantzitsuak sustatu nahi ditugu, eta kanpotik ere jarduera garrantzitsuak ekarri.

Beraz, urtero egiten diren triatloi eta Silvestre Deuna lasterketekin batera, besteak beste, mendi lasterketa bat egiteko asmoa dugu. Eta pilota partida garrantzitsuak hemen egiten hasi diren bezala, beste kirolean ere halakoak egitea pentsatzen ari gara, goi mailako areto futboleko edo eskubaloi partidak adibidez.





# Zozketa Mundiala: jokatu eta jostatu,

## ● JOKOA EZ DA ERRENTA.

Jokoa ez da errenta. Hori da herriak erabili izan duen esaldia. Aspaldiko kontua da hori, eta egia zinez. Baina orain badi-rudi jokoa errenta dela. Alderdi guzietar-rik jokatzeko eta jokatzeko. Eta honek ez dezake gauza onik gure artera ekar. Ata-rramentu txarra.

Jendea, eta batez ere gazte jendea joko arriskugarri batean ari da sartzen.

## ● GUREA, JOKOABAINO GEHIAGO JOSTAKETA DA.

Bai, Zozketa Mundialean ere jokatzeko esaten dizugu, baina gureak ez du giza-koa mendean hartzen, gureak ez du inor jokoaren morrontzapean jartzen. Gurea jostaketa da, gure arteko jostaketa bat.

Eta jostaketarekin batera Pulunpe eta amezti.eus-rendako laguntza. Euskal prentsak bizi behar du, euskarak bizi be-har du. Emaiozu hats, hil ez dadin.

## ● GUREAN BETI TOKATZEN DA

Bai, gurean beti tokatzen da. Aunitz edo gutxi, baina gurean beti izanen duzu sa-ria. Hor, hilerro, izanen duzu etxean Pu-lunpe. Eta egunero ikus dezakezu amezti.eus interneten. Zure zerbitzura gauzka-zue. Eta zurea ere bada Ametzta.

Gure arteko jostaketa da, Anuetik hasi eta Imotz barne, zazpiak bat.

## ● EUSKAL MUNDUTIK APARTE BIZI ZAREN HORI.


Eta egiteko hau zurea ere bada. Bai, bai, zurea, euskal mundura ia inoiz hurbildu ez zarenarena. Gurea eta zurea. Denona da egin behar inportante hau. Ez dizugu askorik eskatuko, gure jokoa sartzea, besterik ez. Zu, aspalditik euskararen mundutik urruti antza bizi zaren hori, zu-rea ere bada gaurko joko hau. Zure diru-laguntza behar dugu, emaguzu laguntza pixar bat, jokatu Zozketa Mundialean!

Orain duzu aukera apustu egitekoa, txar-tel batzuk hartu eta egin apustu euskararen alde.

## ● ETA EGIN DEZAGUN APUSTU GUZIOK.

Adiskide, irakurle, herrikide, auzo eta lagun: egin apustu euskararen alde, egin apustu Pulunperen alde! Egin apustu Ametzaren alde.

Eta egin apustu ametsaren alde: gure amets bikainean, Nafarroan euskara in-darrean!



## Lagun iezaguzu

Txartelen batzuk saldu nahi badituzu, baditugu 20, 50 eta 100 txartel dituzten takoak. Sari pila, sari bikainak... txartelak saltzea ez zaizu zail eginen.

Horretarako idatzi ametzta.eus helbide elektronikora edo arduradunekin jarri harremanetan. Aldez aurretik esker mila.



# FONDOS SOSTENIBLES

Comprometidos a fondo con un mundo mejor

Por la  
**RENTABILIDAD\***

\* Ni el capital invertido ni la rentabilidad están garantizados, ya que los Fondos pueden generar pérdidas

Por la  
**SOSTENIBILIDAD**

**Política de Inversión Socialmente Responsable (ISR).**  
Aquellas inversiones que aplican en sus decisiones de inversión, no solo criterios financieros, sino criterios sociales, ambientales y de buen gobierno.

## Rural Gestión Sostenible I FI



Para un inversor **CONSERVADOR**


Código ISIN: ES0174215006

Nº registro del Fondo en la CNMV: 5262

Gestora: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.

Depositaria: Banco Cooperativo Español.

## Rural Gestión Sostenible II FI



Para un inversor **ARRIESGADO**

Código ISIN: ES0156836001

Nº registro del Fondo en la CNMV: 5263

Gestora: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.

Depositaria: Banco Cooperativo Español.

Este documento tiene carácter comercial y en ningún caso constituye una oferta, recomendación de suscripción ni asesoramiento financiero en materia de inversión. La información contenida en el mismo no sustituye a la documentación legal que deberá consultar antes de adoptar una decisión de inversión. Ambos Fondos se encuentran registrados en CNMV. El folleto de los Fondos y el documento con los datos fundamentales para el inversor pueden ser consultados en las oficinas de Caja Rural, en [www.ruralvia.com](http://www.ruralvia.com) y en la CNMV. El valor de las inversiones en fondos está sujeto a las fluctuaciones del mercado. Gestora: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C. Depositaria: Banco Cooperativo Español.



**CAJA RURAL  
DE NAVARRA**

[cajaruraldenavarra.com](http://cajaruraldenavarra.com)

# Zorion Zorionak!



Zorionak Eki eta Marta!



Zorionak Mexikortxo!



Zorionak Ilargi!



Zorionak Virginia!



Zorionak Luis!



Zorionak Iraia!



Zorionak Juanito!




Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!

[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)



Zorionak Josu!



Zorionak Iosu!



# Ez jolastu suarekin, gozatu harekin

JARRAITU AHOLKU ERRAZ BATZUK SEGURTASUNA  
AREAGOTZEKO, ZURE TXIMINIAREN  
EROSOTASUNARI UKO EGIN GABE

ERAIKITZEKO EDO BERRITZEKO, PROFESIONALAK KONTRATATU

ALDIZKA MANTENTZE-LANAK EGIN

BEHAR BEZALA ERABILI



[www.tximiniak.nafarroa.eus](http://www.tximiniak.nafarroa.eus)

**GOGOAN IZAN:** Neurri guztiak hartu arren, kea edo sua ikusten baduzu, deitu berehala 112 telefonora. Deitu ondoren, itzali tximinia eta, zure burua gai ikusten baduzu, saiatu sua itzaltzen suhiltzaileak iristen diren bitartean, baina ez jarri inoiz zure burua arriskuan.



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

# 2018ko iraila

## Gure alderdian, irailean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

### Jaiotzak:

Dakigula, irailean ez dugu jaiotzarik izan.

### Ezkontzak:


#### ODIETA

##### Gaskue

Asier Ocaña Aldatz, Markalaingoa, eta Judit Orrio Ollo, Gaskueko **Juankonekoa**, irailaren lehenean ezkondu ziren. Gaskueko **Juankonean** biziko dira.

##### Anotzibar

Alvaro Egea Alegria, Anotzibarko **Uartekoa**, eta Leticia Roanes Otero, Iruñekoa, irailaren hamabostean ezkondu ziren. Garinoainen biziko dira.



▲ Leticia eta Alvaro, Santurbanen

#### Gaskue

Ivan Vedia Jimenez, Ollakarizketakoa (**Xulapain**) eta Amaiur Elizalde Lallana, Iruñekoa, irailaren hogeita bian ezkondu ziren. Iruñean biziko dira.



▲ Iban eta Amaiur, Santurbanen

#### ULTZAMA

##### Lizaso

Xabier Villava Ariztegi, Lizasoko **Argizillen etxekoa**, eta Josune Altuna Villanueva, Suarbeko **Polloneko bordakoa**, irailaren zortzian ezkondu ziren. Suarbeko **Polloneko bordan**, ezkerreko aldean biziko dira.



▲ Josune eta Xabier

“  
Mila zorion  
ezkonberriei  
”

### Heriotzak:

#### ODIETA

##### Ziaurritz

Ana Maria Bizkai Armendaritz, **Apezeneko** etxekoandrea, irailaren 23an hil zen.



▲ Ana María Bizkai

“  
Gure oroimenean  
izanen zara  
”



**NEUMÁTICOS BETELU**

**646 47 41 66**

**Juan Alonso Ortiz**

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure  
neumatikoak konpontzera  
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak  
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · [Info@neumaticosbetelu.es](mailto:Info@neumaticosbetelu.es)

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA

**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · [karrikolaregoitz@gmail.com](mailto:karrikolaregoitz@gmail.com)

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**


**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · [argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



# Zozketa Mundiala



## 2018

### Sarien Zerrenda Lista de Premios

Asteburuko Bidaiak 2 Lagunentzat

**3**

**3** Fines de Semana para 2 Personas

Txerri Gizen

**10**

Cerdos Gordos

Axuri Eder

**10**

Hermosos  
Corderos

Bazkari edo Afari Bikoitz

**18**

**18** Comidas o Cenas Dobles

eta...beste anitz sari!!  
y...un montón de regalos más



[www.amezti.eus](http://www.amezti.eus)